



KEN DEZAGUN MOZORROA UNE BATEZ

Elena Aranbarriren gidaritzapean, 20 eta 65 urte bitarteko 12 lagun aritzen dira Tolosako antzerki tailerrea >4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-01-11

VIURTEA 1.333.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

TXOKOETAN ERE EUSKARA

TOLOSALDEA Elkarre gastronomikoak euskalduntzeko 'Egin txokoa euskarari txokoan' ekimena abiarazi dute

EGUNEROKOAN Hainbat tresna eskainiko dizkiete euskaraz aritu ahal izateko: hiztegia, zerrendak... 7



JON HERNAEZ/ARGAZKI PRESS

MIKEL URDANGARIN MUSIKARIA

«Autoekoizpena zen buruan nuen diskoa egiteko modua»

TOLOSA Gaur kontzertua emango du musikari zornotzarrak, Leidorren, 20:30ean, 'Anek idatzi dit zutaz' lan berria aurkezteko z



Pasa den urtean ikusgai izan zen Leidorren Xurdirin beste abentura. E. EZEIZA

'Xurdirin eta Gorringo lakuaren misterioa' antzerki musikala, bihar estreinakoz

TOLOSA Xurdirin abentura berria ikusteko aukera izango da bihar, leidorren, 17:00etan 6

Tolosako Kultur Etxean HITZALDIAK

Kontzientziaren iratzarpena



Urtarrilak 11

Hitz egin dezagun
Chakra izeneko
zentro energetikoetaz

Urtarrilak 14

Chacren psikologia ezkutua

Tel.: 688 607 816 - 688 642 923

E **Elkarrizketa****MIKEL URDANGARIN** ▶ Musikaria

HITZA

«Buruan neukan diskoa egiteko bide bakarra autoekoizpena zen»

Kultura ▶ Musikari zornotzarrak gaur iluntzean aurkeztuko du bere azken lana Leidor antzokian; 'Anek idatzi dit zutaz' du izena bere disko berriak.

ESTI EZEIZA

Bizitzaz, giza harremanez eta nork bere munduan dituen arazoez hitz egiten du Mikel Urdangarin bere azken disko honetan. *Anek idatzi dit zutaz*, bere lan berria, bidai gutunak, nahiz zenbait egoera salatzen ditu aurki daitezke. Hamar urte igaro dira kantari zornotzarrak musika munduan murgildu zenetik, orain, bere azken lana kaleratzeko, autoekoizpenaren bidea hartu du. Hala, gaur 20:30ean aurkeztuko du bere lan berria Urdangarin, Leidor aretoan.

Soinu eta kantu aldetik, zein berrikuntza dakartza zure azken diskoak?

Beti egon naizen moduan, ni nago kantuen atzean. Dena den, berrikuntza batzuk baditu. Azken hiru urteetan aritu naizen taldearekin grabatutako lana da, baina aipagarria dena da, zuzeneko formatoan estudio barruan grabatua izan dela. Hau da, denak batera, gelabatean sartuta, eta toma bakarrean, kantua hasi eta bukatu arte. Eta ez instrumentukoa, edo banaka, sarriantzen den bezala. Aspalditik egin nahi nuen horrelako lan bat,

baina gertatzen dena da, askotan ez dela erraza hori egitea. Talde honekin egin ahal izan dut. Kutsu tradizionala diskoa da eta izara klasikoak ikusten diot. Iraganeko irudiak etortzen zaizkit musika eta diskoa definitzeko garaian.

Entzuteko garaian diskoa, zertan nabari da zuzeneko formatoan izan dela grabatua?

Horrela grabatu izanak ekarri du, nolabaiteko freskotasuna eta bizitasuna izatea lanak. Soinu bizia du, kutsatzen duena, gainera instrumentu guztiak batera daudela, eta ez dituzenez banan bana grabatzen, beti kutsadura bat dago, eta hori polita da kasu honetan. Hori nahi nuen.

Kantuetako letra batzuk zure idatzituz, eta beste batzuk, zure idazle lagunek? Hauek, bereziki zure diskorako prestatu al dituzte?

Sustrai Kolinak egindako kantua lehenagotik ateratakoa da, 18/98ko auzipetuei laguntzeko ateratako diskorako egin zuen. Gero, hau zuzenean jotzen hasi ginen, eta bertsiotzat ere egin genuen. Disko honetan, moldaketa hori grabatu dugu. Bertsiotzat

nola geratzen zen asko gustatzen zitzaidan eta hura sartu dugu. Hala ere, besteak bai, espreski disko honetarako egindako kantuak dira eta nirekin kantu dezente egindakoak dira. Diskoa, bidai koaderno, eguneroko baten antzeko formatoan egin da dago eta koaderno horretan nire bizipenak biltzen ditut, nire gutunak, baina baita lagunenak, eta horretarako, adiskide guzti hauen laguntza izan du.

Diskoak tradizio kutsua eta dantzakoa du.

Diskoa pentsatzerako garaian, urtaroei begira, hiru urtaroko diskoa dela esango nuke: udaberria, uda eta udazkena agertzen dira. Negua ez da agertzen nire uestez, nire asmoa zen behintzat, negua ez agertzea. Hau desterratu egin dut. Disko bizia, kutsu alaiakoa izatea nahi nuen. Bizia nik ulertzen dudana erara. Izaera tradizionala kantu

«Bidai koaderno honetan nire bizipenak biltzen ditut, nire gutunak, baina baita lagunenak ere»

asko daude, bertso formatoan egituratuak, parte instrumentalak ere pisu handia dauka, eta esango nuke aire klasiko bat daukala. Baina, hala ere, soinuari begira aniztasuna baduela esango nuke. Nahiz eta kutsu tradizionala gailendu.

Diskoan pentsatzeko garaian buruan nuen beste irudia zen, ezkontza zahar batena, zuri beltzean. Non aspaldikoetan eta oraingotan gertatzen den bezala, bizitzan sintesi txiki bat ematen den. Alde batetik, barre egiten da ezkontzetan, edan, dantza, baina baita negar ere. Ospakizunaren baitan gauza ugari gertatzen dira. Honez gain, iraganeko, atzera begirako soinu eta kolore bat nahi nuen diskoan. Horren bila joan nahiz, baina jakinda ni gaur eguneko naizela eta gaur egungo musika dela.

Zure azken lan hau, autoekoizpena da, zergatik eman duzu zure zeuk ekoizteko pausoa?

Nik buruan neukan diskoa hasi eta bukatu egiteko modu bakarra autoekoizpena zelako. Nik ueste dut, oso disko zaingoa dela formato aldetik. Maitasun eta denbora asko eman diot lan honi eta artisaun lana ere badela esango nuke. Ez da disko arrunt bat, bidai koaderno bat da, eguneroko baten antzekoa, eta bertan biltzen ditut nire bizipenak, besteak, hitzak, oroitzapenak... Mimo handiz egindako lana da eta hau egiteko modu bakarra autoekoizpena zen. Bestalde, adosten ari ginela, ez ginen akordio batera iritxi aurreko disketea eta ni, horregatik, nik, niregatik egin nuen apustu, bide bakarra hau zela ikusi bainuen.

Autoekoizpenaren bideak, asko

arriskatzeara suposatzen du, baina abantailak ere baditu.

Honek, lehenengo eta behin, askatasuna ematen dizu, hasieratik bukaerara arte, zuk zeuk hartzen dituzu erabaki guztiak, edo gutxienez, hauen jakitun zara. Bestalde, nire apustua da, nirea eta lan taldearena. Ni nago azken erantzule bezala. Beste abantailen artean, desenkantua kentzen dizu, autoekoizpena denean, hobeto edo okerrago atera daiteke, asmatu dezakezu, edo erratu, baina desen-

«Hiru urtaroko diskoa da; negua ez da agertzen, disko bizia eta alai izan dadin egin dut»

kanturik ez daukazu. Izan ere, zu zara erantzulea. Gainera, disketxeekin, askotan gauzak ez dira zuk nahi dituzun bezala, eta askotan, ezta haiek nahi luketen bezala ere. Beti daukazu bat aldamenean eta nolabaiteko konpromisoa daukazu. Kasu honetan berriz, ni naiz azken erantzule eta askatasun horrekin jokatu dut. Apustu latza da, baina irabazteko gehiago daukala ueste dut, galtzeko baino. Ekoizpena nik neuk egiteko erabakia hartu nuen, nire hobebearrean, eta ueste dut erabaki zuzena dela.

Ikasbide gisa ere, balio izango zizun.

Disko baten ekoizpenak dakarren lanaren jakitunago egiten zara. Lehenago arduratzen ez zinen gauzetan arduratzen hasten zara. Hala ere, laguntza handia izan dut, nire ajeziakoei asko lagundu didate, babes handia eman didate eta lan izugarria egin dute. Modu honetan, denaren berri daukazu eta ikaspen polita da. Apustu bat da, apustu handia etorkizunari begira, eta bide berri bat irekitzea espero dut.

Gustura al zaude egindako apustuarekin?

Oso oso gustura eta pozik, baita kantuekin ere. Uste dut lan beneratzen den, baina ni behintzat lasai nago, badakit, esku artean daukadan lana merezi duena dela.

'Anek idatzi dit zutaz', zure hamar urteko ibilbidearen azken fruitua da, baina zein balorazio egiten duzu, hamarkada honen inguruan?

Balorazio oso ona, batez ere bizirik nagoelako, eta horixe delako gauzarik garrantzitsuen bultzatza honetan, beste gauza guztien gainetik. Bestetik, bizi naiz gehien gustatzen zaidana egiten, hau da, musika eta kantua. Musikak eman dit honetaz bizitzeko aukera, oso modu estuan bizitzeko, eta baita berarekin sufritzeko ere. Izan ere, musikarekiko dudana harremana oso estua da, onerako nahiz txarrerako. Baina balorazioa ona da, zorrioneko sentitzen bainaiz, eta ea urte askoan horrela den.

Laburrak

EAE-ANVK bihar Iruñera joateko deia luzatu du

POLITIKA ● EAE-ANVK bihar Iruñean izango den ekitaldirako deialdia zabaldu nahi die herritarrei. Hala, 17:30ean, Anaitasunan, EAE-ANVK hauteskundeetarako duen eskaintza aurkeztuko du.

Konpartsa eta karroza lehiaketan izen-ematea

AISIA ● Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketarako izena emateko epea irekita dago. Hau asteartetik larunbatera bitarte egin daiteke Aranburu jauregian. Ordutegia 17:30etik 20:30era bitartekoa da, eta azken eguna hilaren 25a izango da.

Etxebizitza eskubidea aldarrikatuko dute bihar

GIZARTEA ● Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladek, etxebizitza mugimenduari batera, kalejira antolatu dute Zarautzen, etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko. Sanblaspeko gazte asanbladak, bihar 20:00etan Zarauzko udaletxeko plazara joateko deia luzatzen diete herritarrei, eta gauzatuko den ekitaldian parte hartzeko.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen. 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzarain autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrumendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholismoaren arazoa gertutik ezagutzeko, hitzaldia gaur

Hitzaldia » Uzturre Alkoholiko Anonimoen elkartearen 15. urteurrena dela eta, gai honen inguruko hitzaldia antolatu dute gaur 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean.

ESTI EZEIZA

Uzturre Alkoholiko Anonimoen Elkarteak 15 urte bete ditu. Hori dela eta, alkoholismoari buruzko hitzaldia antolatu du Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuarekin elkarlanean. Hitzaldi hau gaur 19:30ean izango da Kultur Etxean. Hala, gai honen inguruan interesa dutenei zuzenduta dago saioa.

Jardunaldian, alde batetik, Pili Oronez mediku psikiatra alkoholismo gaixotasunaren inguruan mintzatuko da. Ondoren, Lourdes Senovilla Gizarte laguntzaileak eta Al-Anoneko kideak gaixotasun honek familian duen eragina azal-



Uzturre Alkoholiko Anonimoen elkarteak Lourdes Senovillarekin. E. EZEIZA

duko du. Azkenik, Uzturre Alkoholiko Anonimoen elkarteak kideek baieztatuko dute, irtenbidea badagoela.

Senovillak azaldukoaren arabera, orohar, gaixoaren familiakoak dira laguntza eske gizarte zerbitzuetara joaten direnak. Egoera hau jasanezina denean, eta elkarbizitzan eragina izaten hasten denean joaten dira laguntza eske ahaideak. Al-Anoneko kideak azpimarratu zuen, «beste drogekin ez bezala, alkoholarekin gertatzen

dena da, legala denez, eta gizartearen ongi ikusita dagoenez, askotan zaila dela bere erabilera gehiegizkoa dela nabaritzea».

Kontsumo ereduak aldatuz

Lehen, alkohola edaten zuena, gizon heldua zen, egunero kontsumitzen zuena tabernetan, eta etxera erdi mozkorra iristen zena. Bestela berriz, etxe barruan edaten zuen etxeko andrea. Orain berriz, gehiago ikusten dena da, jende gaztea, asteburuetan bakarrik al-

koholola edaten duena, baina denbora gutxian kantitate handiak, eta beste sustantzia batzuekin nahastuta. Halaber, Senovillaren hitzetan, «kontsumo horiek arriskuetsuak ez direla iruditzen bazaigu ere, arazo izatera iritsi daitezke, eta alkoholismora eramán dezakete».

Familiaren egoera

Pertsona batek alkoholarekin arazoak dituenean, honek eragin handiak ditu ahaideengan. Normalean, hasieran, ez dute jakiten zer egin. Batzuetan gainera, ez dute onartzen pertsona horren gaixotasuna, eta justifikatzen saiatzen dira. Bestalde, uste izaten dute beraien dela errua... Kontsumoa osasunarentzat arriskutsua da, gorputza ez baitago ohituta.

Alkoholikoen ahaideei gomen datzen zaiena da, pazientzia izateko eta garbi edukitzea, pertsona horrek duena gaixotasun bat dela. Bestetik, «mozkorraldi edo istilu baten ondoren beharrezko, egoera baretzen denean pertsona hori arrez aurre hartu eta arazo bat due-la erakustea» dela egokiena azaldu zuen Lourdes Senovillak Udaleko langileak.

«Hasieran, egunerokoari aurre egiteko beharrezkoa da elkarteetara jotzea»

UZTURE ALKOHOLIKO ANONIMOEN ELKARTEKO KIDEAK

Gizartea » Uzturre Alkoholiko Anonimoen elkarteak izango dira gaur, beraien esperientzia azaltzen

E. EZEIZA

Gaurko 19:30eko hitzaldian, Tolosako Uzturre Alkoholiko Anonimoen elkarteak izango dira erakusteko, adikzio hau gaingaitu daitekeela. Honenbestez, euren esperientzia kontatu dute, baina beraien identitatea gordeaz, elkarteke legea jarraituz.

Non dago kontsumitzaile arruntaren eta alkoholikoaren arteko muga?

Alde batetik, egunerokoan, ohiko diren gauzak, edan gabe egin ezin dituenean pertsona batek. Bestetik, oroimen hutsuneak izaten hasten zarenean, hau da, ez zarenean gogoratzen egin dituzun gauzez. Azkenik, alkoholismoaren azken mugara iristen zarenean, jeikitzearekin batera alkohola edan beharrra daukazu. Dardarak eta ezinlegona sentitzen duzu, eta alkoholak besterik ez zaizu sartzen.

Alkoholik gabe bizitzea zuen eguneroko erronka da.

Geuk gure leloa daukagu: *beste 24 ordu igaro ditut edan gabe*. Nahiz eta 16 urte igaro diren alkoholarekiko nuen nenpekotasuna igaro nuenetik, egunero, berriro hasiko bagina bezala hartzen dugu kontuan. Dena den, gerta liteke, lehen-dabiziko egunean onartzea alkoholikoa zarelako, eta gehiago ez erori.

Zer da terapietan egiten duzue-na?

Hauetan, bakoitzak bere esperientzia kontatzen du. Azalduz, nola utzi zuen eta zeinek erakutsi zion. Batak besteari laguntzen diogu, dugun esperientziari esker. Hasieran, medikuen laguntza beharrezkoa da, baina gero, egunerokoan dago arazoa. Kalean zaude eta ez dakizu zer egin. Horregatik, taldeak daude, zein egunero elkartzen diren, hitz egiteko. Hasieran, eguneroko horri aurre egiteko, beharrezkoa da Alkoholiko Anonimoen elkarteetara joatea. Gogoratzen dut, terapia horietako batera iritsi nintzenean esan zidatena: mozkorrik handienak ere, igaro dezake egun bat alkoholik edan gabe. Eguneko lehen-dabiziko tragoa da txar-

rrena, horren ondoren besteak baitatoz. Hori hartzen ez baduzu, ez duzu hurrengorik ere hartuko.

Sendatzeko bidean, zer da gogorrena?

Onartzea gaixorik zaudela eta alkoholarekin arazoak dituzula. Konturatzea, laguntza behar duzula eta ez zarelako zure buruaren jabe. Edanda zaudenean uste duzula dena dakizula eta aholkuak ematen ari zenez zara, konturatu gabe, zeu zarelako oker dagoena. Gainera, sendatzeko bidean hasten zarenean bizitaz aldatu beharra dauka-

zu. Lehen zenituen ohiturak alde batera utzi beharra daukazazu, baina merezi du.

Zuen seme-alabek arazo bera izango dutenaren beldurrik ba al duzue?

Nik, finean, niri ikustea nahi nuen. Hasieran, asteburuetan bakarrik edaten nuen, astean zehar lana egin beharra nuelako, eta seme-alabak hezi. Baina uste dut beraiei niri gertatu zaidan berdina egokitu zaiela, hau da, alkoholiko jario direla. Alkoholikoa dena jaiotzetik dela esango nuke.

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

eskaintzak
-%30



Tolosako Kultur Etxean antzerkia ikasten duten ikasle batzuk, gidatuta ikasteko lehen egunaren ondoren. A. URIBI

KARETAZ BESTALDE

Antzerkia » Tolosako Kultur Etxean astean bi egunetan bitzen dira 20 eta 65 urte bitarteko 12 lagun, bestean artean, antzerkia ikastera.

NERE URIBI

Arratsaldeak arinagoak dira antzerkiko klaseak dauzkanen, eta eguneko gogortasunak besteak beste ere ematen du. Astean bitan bitan dira Tolosako Kultur Etxean antzerkia ikastera doazanak, eta eguneko erabiltako mozorroak lantzen dira hainbat benetan diren bezalakoak bi orduz izateko. Adin ezberdineko jendea eta errealitate ezberdinekoak, denak gutxienez behar bezain banekin ondo pasatzea.

19:30ean elkarrekin dira Kultur Etxeko zuzen solairuan, eta hasia da leku bezalako gelan jasotzen dituzte eskolako Elena Aranbarriekin. Arrosa eroso jantzen dute han bertan, elkar ikusi gabeko egun horietan zer egin duten komentatzen duten bitartean.

Lehenengo ordua izertila botatzeko izaten da normalean, musika entzunaz eta zaindutako mugimenduak eginez askean, galkoak eta oreka eskatzen dutenekoak.

Ondoren, arnasa lantzen dute: hau ere oso garrantzitsua da antzerkiko, erlaxatze eta antzerkerako orduan ahotsa bidertzen jakiteko.

Inprobisazioa ere lantzen da Antzezko garaian inprobisazioa eta sormena oso garrantzitsua dira, truenia ez bezalakoak. Eguzi era ezberdinetan lan egiten dute, berez ez ezertarako balio ez duen tresna bati balio bat ematen diote, animalien lekuan jartzen dira, ahosa aldatzen dute, existitzen ez daena ikusten dute, hitzekin jolastu dute, atonizazio lantzen dute, eritimoa lantzen dute... Hauek guztiak baliabideak dira, tresnak, eszenatoklaren gainean daudenean momentu zehatz batean (edo inkozesentziki ber) erabiltzeko.

Familia honetan losak alde batera uzten dituzte (ez da erraza, beste 24 begiki begiratu eta antzerkian zaituzten bitartean) eta barneko sentazioak ezkatu horiek argia ikusten dute, kanpora ateratzen dira.

Herri ezberdinetako jendea josten da Tolosako Kultur Etxera, espreski antzerkia egitera, arrotzak eta soziazioan diren pertsona horien harremana izatera: antzerkiaren kontaketa izatera: barmenak hastuz ere euren burua eragotzen: euren magekin topatzen.

Datorren klasearen zain Klasea talde unitate hoxek, inprobisazioa landu ondoren, eta irakaski-akiratu beharrekok egun ondoren, klaseko bi orduak bukatu diren momentu zehatz batean (edo inkozesentziki ber) erabiltzeko.

li ikusi dute, eta kalera erabiltzeko arropak bertan jantzen dute, dotoren klase eguneari zer egindako pentsatzen, egun horietan bertan egin dutena etxera bidatu bispaziaz joan ondoren.

Keinu bat asmo bat da Askotan esaten da horetan dinamika aldatu egin dute, ekainean egindako duten antzezlanaren prestazioa lantzen. Gisa zehatza egin dute, eta Eguberriaren aurkitu puzteko aplikatu behar dute, hitzak hitz soiletan gero ez daitezke.

Herri ezberdinetako jendea josten da Kultur Etxera, astean bi egunetan bi orduz perak banatu zituzten. Orain, ia guztia faktu da.

Taldeen zehar, dituzte, eta badakizun ere irudimenera lekua egin diote eta etxean egin behar den lana ere jolastu behar dute ez baita ez eman klasean: baloak izateko pertsona sinesten, sortzen hasi behar dira. Hiztuna denari irakaztea, bera denari urduritzea, gaitza denari irakaztea... Pertsona horiek ikasleko dituzte, baina ez bakarrik klasean jasotzeko, ezera lan piztu bat eraman behar du baina. Keinu guztiak zaindu behar dute, nola edo hala eginda, esanahia ezberdina izango baita.

Txetxak ez dituzte urritik abendura arte dituzte, han izango dira ikasle hauek, gauza berriak ikasleko errealitate.

gubiagok izertila orduan botatzea, antzerki bitartean, halere, ziar kompentziaz duela, aktore bidean doazen hauen aurrepegiaren gogoa eta urduritasuna eta ikaslearen arteko nahasketak izaten baita.

Iuska, gogo eta asmo onarekin ikasle dute guztia, 20 eta 65 urte bitarteko 12 ikasle hauek, Elena Aranbarriekin. Leidorrekin, 23an soto eskainiko diete herrikeri eta gogoa dute guztiek, ikasleek, gogotsu daude. Enaitza erakusteko momentua hura izango da, urtean zehar ikasleko izertila eta zergatik ez, herrikeri hori dezaitez zer ikasten den eta nola merezi duen klase hauetara joateak, gozamen eta esfortza batriatzen eskaintza doazeko.

antzerki taldeekin bi ikasle, testua lantzen hasita... Aste honetan ikasle beharrekotzeku eta lekuak izango dute garrantzia... A. URIBI

gubiagok izertila orduan botatzea, antzerki bitartean, halere, ziar kompentziaz duela, aktore bidean doazen hauen aurrepegiaren gogoa eta urduritasuna eta ikaslearen arteko nahasketak izaten baita.

Iuska, gogo eta asmo onarekin ikasle dute guztia, 20 eta 65 urte bitarteko 12 ikasle hauek, Elena Aranbarriekin. Leidorrekin, 23an soto eskainiko diete herrikeri eta gogoa dute guztiek, ikasleek, gogotsu daude. Enaitza erakusteko momentua hura izango da, urtean zehar ikasleko izertila eta zergatik ez, herrikeri hori dezaitez zer ikasten den eta nola merezi duen klase hauetara joateak, gozamen eta esfortza batriatzen eskaintza doazeko.

antzerki taldeekin bi ikasle, testua lantzen hasita... Aste honetan ikasle beharrekotzeku eta lekuak izango dute garrantzia... A. URIBI

2 sarrera pare deitu eta eskuratu
Urtarrilak 14 astelehena 16:00etan Tolosako Beotibar pilotalekuan
Partea hartzeko, deitu guzuz zerbaki honetara: 943 65 56 95

Galarza V - Galarza VI Arizta Lasa - Nalda III
BENGOTXEA VI - PATXI RUIZ EUGI - LASA III
Uriarte - Merino I Cabreri - Apeztegia

5 sarrera pare Mikel Urdangarin irabazteko
* Mari Agotez (Leizor)
* Maria Dolores Seltzer (Baera)
* Agustín Agotez (Tolosa)
* Benito Bernabe (Txarama)
* Ester Zelaia (Añetsot)
ostirala, urtarrilak 11 • 20:30an Tolosako Leidorren Sarrerak lehiatzen bertan izango dituzte

«Esperientziak sortu eta konpartitzen dituzte»

ELENA ARANBARRI » Antzerki talereko irakaslea

Antzerkia » Antzerkiak hitz egiteko hainbat arrazoi eta urte ditu, eta zabalagoa izateaz gain, bere egitokia ere bada.

A. URIBI

Elena Aranbarri (Tolosa, 1967) Tolosako antzerki talereko irakaslea da. 15 urte inguru darabizta Tolosako Kultur Etxean, baina bere ibilbidea askoz ere zabalago da. Bederen-baten aritu da, May Gosseslaginekin orain ikasle-entzietan. Arantzan dabil proiektu oso interesgarria (Orla Hassonekin). Kultur Etxean dabilen talereko oso ondo postean duela di Elenak. Asvinienearen sortzea hurbiletik bizi izan zuen beste hainbat antzerki munduko jende gertu eta bakarrik lan egiten duen jendearekin batera.

Zein helburu dauka antzerki talereko? Helburuetako bat gopurtzarekin komunikatzea bultzatzea, hitza aldatzea. Adib. beren, komunikatzea gaitasunak murrizten dituzten da, eta honekin batera pertsoek dauzkaten komunikatze potentzialtasunak atzeratzea. Antzerki talerean antzerki konpartitzen dituzte. Ikasurte buketan ikasleekin ere konpartitzen dute, antzerkiak ez eskaintzen baitute egizko eszenatikotik baten.



A. URIBI

Eta zuek zein helburu dute? Bena ez dute ure talerean ahalik eta jende gehien lortzea eta ikasurte amaierako lan horretan mugatu behar denik. Hain zuzen helburu on bat izango litzateke, talde egonkor bat lortzea, kanpoaldetako proiektuarekin. Maita gehiagorik ezustako antzerki eskola bat. Eta baita Euskadiko beste talerekin komunikazioa, baten eta bestearen lana ikusleko adierazteko.

Zein da antzerkiaren egoera Tolosaldean? Antzerkia beti izan da eta izango da guriengoztatzen, baina leku gutxiartean. Baina Tolosan beti dago gogo eta jakinmin handia duen jendea, hai muskarekiko, pikturak, antzerki, zina, kantarriko... Polita litzateke a fizioan hauen lanak ikusteko, eta entseguetako erantzunak jartzera. Hau da, ahalik, Asvinienearen sortzea arazoetarako.

Leidor, Aranburu, Asviniene, Gurea... Bada antzerkia egiteko lekurik? Bena... Asvinienek ez dauka ekonomikoki inongo Udalen babesik, irabazi asmozko gabeko elkarreza da, bezalakoek ordaindutakoak bizi da. Uste dugu egitura txikiak eta erantze ikasleekin egiteko egoera dela eta baita Tolosako Udalaren laguntza izango dugula etorkizun hurbilean ere. Baina galduta berriaz helduz, aretoak egon, badaude.

Erakundeak babesa baduzue? Inork ez bizi bidezta hain aukerazten duen, egiten da eta lito, nahiz eta zailtasunak bidean izan. Lanean urte batzuk darabiztazuzen

eta laguntzarri jasotzen ez duzun neurria dabilinimozonortzea. Baina ardura batzuk haru behar ditu bere gain eta udalarek edo besteak erakundeak inntesa eta eragitea izan behar dute honelako. Zintzoki, uste du oso interesgarria izango litzatekeela kultur proposamenak indartzeko inbertitzea, produktzioak bastea, eta Kultur Etxeko talereko ere buruan sartzen dituzte. Uste dutekaltzari dagokionez hain gutxiagok izan behariko ginatekeek; kaltate eta hedadura gehiagorik udalarek batenaz matrikula gehiago dira, jendea entzetzeko eskaintza gehiago, baldintza hobeak ikasleentzako, prestakuntza profesionalagoa. Denentzat hobea izango litzateke.

Eszenatokian zauden guztietan antzerki egiten du? Aktore on baten bat. Gu gure gure horretaz urrutien jantzen da eta egin behar dugun pertsonaistara hurbiltzen ere bai. Baina lan horretan beti dago norberaren zati bat inplikaturia. Hor daukizagure baliabideak gizaikari buruz eta bere portuak buru d'gukizagure erabilizko.

Asko antzerkiaren eszenatikotik kargu? Denek bere papera egiten dute. Lan batzuetan bitartean eszenatokian gezurra esaten ikasten da askok hobe eta zaharkiago, antzerki eskola batean baino. [Kargu]

Tolosako Leidor aretoan, bihar Xurdinen abentura berri bat ikusteko aukera edukiko duzue, haurrak. Ez pentsatu bi aldiz, oraingoan gainera, zuen laguntza behar du Xurdinek.

Xurdin ipotxa haurrei deika

ASIER IMAZ

Xurdin makal dabil, jolas berriak asmatzeko gaitasun oparoa, gutxitu egin zaio bat batean haurrak. Zerbait egin behar duzue. Baina zer? Zergatik makaltasun hori? Zer gertatzen da oraingoan Alaitasunaren Basoan?

Xurdin, eta gorringo lakuaren misterioa ikusteko aukera bihar izango duzue, 17:00etan Tolosako Leidor aretoan. Hartu eskutik gustoko duzuen helduren bat eta zoazte antzerki musikala ikustera. Antzerki musikala bai, zer esan nahi duen? Xurdin eta bere lagunek musikaz abentura bat kontatuko dizuetela, bihar zuen laguntza biziko duten abentura, ondorioz zuek ere biziko duzuen abentura izugarria. Ordubete bes-

terik ez da izango, di-da batean pasako omen da, aspertzeko denborarik ere ez duzue izango. Gipuzkoangainera lehen haurrak izango zarete Xurdinen abentura berria ikusten. Zuen lagun nafar txikiak, ipotx urdinaren abenturak jada ikusi zituzten Leitzan eta guztiz gustura irten ziren aretotik. Hauen laguntzari esker, Xurdin onik irten zen azken abenturatik eta horretatik iritsi da Tolosara.

Magia trukoak eta guztia

Xurdinen basoan, Alaitasunaren Basoan hain zuzen ere, dena da erraldoia, edo hobe esanda, Xurdin eta bere lagunak ipotxak dira. Kolore eta magia trukoaren artean dabilzala, zerbait oker dabilela ikusten dute. Zirri eta Borroren azalaren koloreak deuseztatzen



Thomson bere lagun txikiak inguratuz, Xurdin eta gorringo lakuaren misterioa argitu nahian. HITZA

hasten dira, magia bidez bezala. Dofasol Jaunaren musika sortzeko abiltasun ere moteldu egin da eta Xurdinenez ia ezin du jolas berriak asmatu.

Txuria dagoen lekuan beltza ere egoten denez, Marilur sorgin maltzurra agertzen da istorioan. Bera

ote da Xurdin eta bere lagunei gertatzen zaienaren erruduna. Hori jakiteko zuen laguntza beharko du Xurdinek haurrak. Zuen azkartasuna eta bizitasuna erakusteko aukera bikaina izango duzue bihar, ongi pasatzearekin batera. Irtenbiderik lortuko ote duzue? Marilur

sorgin maltzurak lortuko ote du garaipena?

Xurdin eta etorkizuna

Hitza eman du Xurdinek, haurrak, honetatik iriten baldin bada, etorkizunean abentura berriekin aurrrera jarraituko duela. Zuek ikusi.

«Xurdinen abentura hau haurrentzako zuzendua dagoen antzerki musikala da»

SONIA EZKERRA Sointek produkzio-etxeko kidea

Tolosa » Gipuzkoako estrenaldia Leidor aretoan izango da. Urte guztirako egutegia jadanik egina dute.

A. IMAZ

Joxe Mari Gorostidi, Thomson, eta Sonia Ezkerra (Tolosa, 1979) sortu zuten Sointek produkzio-etxea. Jada bigarren proiektua dute esku artean, Xurdinen abenturen bigarren istoria. Antzerkiaren gain, Xurdin oinarri duten produktu ugari plazaratu dituzte. Etorkizunean



A. IMAZ

ere ziur ipotx urdinak zeresana emango duela.

Zer edo zein da Xurdin?

Haurrentzako antzerki musikala bat da. Erabat euskaraz da eta duela 5 urte sortu zuen Thomson-ek. Bera soinu teknikaria da eta antzerki ugaritan lan egitea tokatu zaio. Bestalde, musikaria eta konposatzailea ere bada. Hori dena kontuan hartuta, ideia bat zebil-kion buruan, zerbait idatzi zuen eta gidoilari bati bidali zion, antzerki zezan. Lanpeturik zeudela eta, azkenean ezin izan zuten gidoirik egin. Thomson berak istorioa hartu eta antzezlanak bakar

rik idatzi zuen. Berak ez daki oso ongi euskaraz, beraz gaztele-raz idatzi zuen eta nik itzuli.

Zein da antzezlanaren iraupena? Ordubete. Baina oso intentsoa da, atsedenerako ez dago denborarik.

Zer ikusten du ikusleak eszenatikian?

Kolore pilo bat eta dena erraldoia. Protagonistak ipotxak dira, hau irudikatzen perretxiko erraldioak, belar handiak eta abar daude. Pertsonaietan benetakoa ematen duen gauza bakarra aurpegiak dira. Ikustean, marrazki bizidunak ikusten ari zarela dirudi, dena oso exajeratua da.

Zenbat aktorek hartzen dute parte emanaldian?

Lau aktore daude. Gero off-ean ahotsa egiten duena atzean egoten da. Obra honetan magia trukoak daudenez, beste bi pertsona gehiago ere lan egiten dute. Kontrolarenean ere bi tekniko dauzkagu, argiztapen eta soinu efektu asko daudelako.

Ez da erraza izango haurrei zuzenduriko lana egitea.

Helduentzat egitea baino zailagoa da. Oso kritikoa da, ez bazaie gustatzen, ez zaie gustatzen eta puntu. Oraindik emanaldietan inor zutitu ez delako harrituta gaudela. Aldi berean beraiengandik ikasten dugu, haurrei jaramon eginez eta baita gurasoei ere, haurrekin beraiek joaten baitira. Thomson-ek lehen egindako lanean ikasia, hau da, haurrentzako ziren antzerkiekin duen esperientzia oinarrituz idatzi du *Xurdin eta gorringo lakuaren misterioa*.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Antzerki ikastaroan izena emateko epea zabalik

ANOETA ● Astelehenera arte da Anoetan martxan jarri duten antzerki ikastaroan izena emateko epea. Bi egun daude klase egunak aukeratzeko: astelehena edo ostirala 17:15tik 19:15era kiroldegian, Alaitz Egurenekin (Eguberrietan berak eman ditu klaseak). 30 euro kostatzen da eta murrizpenak ere badaude. Izena udaltxean edo kiroldegian eman behar da. Martxoan bukatuko litzateke ikastaroa.

Gaur Dantza Soka entsegatzeko lehen eguna

ANOETA ● Anoetan Dantza Sokako entseguak hasiko dituzte gaurtik hasita. Gaur izango da, beraz, lehen entsegua Edurkan, 19:00etatik aurrera. Udalak parte hartzeko gonbita luzatu du, beti ere 12 urteko gorakoak direnei. Datozen entseguak hilaren 18an eta 25ean izango dira.

0849, areto futbolekoen zenbaki sariduna

VILLABONA ● Bihar Transportes Lan-kunza areto futboleko taldeak Durangoan jokatu du eta bertara joateko autobusa ere badago. Erreka tabernan eman behar da abisua, Villabonan. Bestalde, Gabonetako loteria ateratu zuen areto futbol taldeak, eta zenbaki sariduna 0849 izan da. Zenbaki hori duenak 610 607 311 telefono zenbakira dei dezake. Saria Frantziako Piriniotara asteburua da.

Bihar, aldarriaren aldeko atxikimendua ematea

ANOETA ● Bihar Anoetan 11:00etatik 13:00etara EAE-ANVren aldarriari atxikimendua emateko aukera izango dute anoetarrek. Hasiera batean joan den larunbatean zen eguna, baina bertan behera geratu zen. Bihar, bukatzeko, 13:00etan, aldarria sinatu duten guztien artean argazkia aterako dute, eta horretarako, abenduaren 31n sinatu zutenen presentzia ere nahiko luke.

Ezker abertzaleak deituta, bihar herri batzarra

ANOETA ● Anoetako ezker abertzaleak deituta, bihar Anoetako udaltxean 11:00etan herri batzarra egingo dute. Bertan jorratuko dituzten gaiak hauek izango dira: egoeraren eta aurrera begirako ildoaren eztabaida, eta martxoko hauteskundeak. Herri gehienetan egiten ari dira batzarrek.

Herriko elizako leihotik sartuta lapurreta egin dute

IRURA ● Irurako elizan herenegun goizean konturatu ziren lapurreta egin zutela. Hiru bat metrora zegoen leihotik sakristian sartu ziren eta handik ordenagailu eramangarria, ohiko beste bat eta DVD irakurlea eramane zituzten. Herenegun goizean 09:00ak aldera ikusi zuten leihoa irekita zegoela. Diruduzenez ez dute beste ezer eramane. Salaketa gaur jarriko dute Ertzaintzari.

Olentzeroren semea



» Kale kantoitik

Joxemi Saizar

Duela zortzi urteko XIV Orduko Ibilaldian taldekide izan genuen batek hiru asmo txar zituela aurreratu zigun: tesi doktorala egitea, mendi federazioko lehendakari izatea eta bi seme adoptatzea. Gure laguna saiatau denez, hiruak burutu zituen. Eta horiez gain, beste proiektu handi eta txiki batzuk ere burutu ditu epe horretan: klinikari eta Aranzadin ari da buru-belarri lanean, aitona-osaba (nola demontre esaten da tio-abuelo euskaraz?) eredugarriari buruzko liburu gomendagarria kaleratu berri du, Olentzero bezala ateratzen da urtero eta ez dakidan beste mila kontu.

Gabonetako oporren bueltan, Errege Magoen Kabalgatan, urteko gaurik magikoenean, jaso nuen berri tristea. Gau horretako haurren irribarre eta ilusio aurpegien artean bota zidan lagun batek: «Enteratu al haiz? Antxonon semea hil dek». Hotz-motz-he-riotz.

Une latzak bizitutako familia bateko bi haur-gaztetxo jaso eta haiei heziketa eta goxotasuna ematen Urkizuko Bista Ederren egindako urteetan haien aurpegian irribarre loratzea lortu zutenean, herriotzak bat-batean eramane du Jose. Ikasketak burutu, lanean hasi, lagunak finkatu, borondatezko beste zereginetan (egunkari hau Inauterietan banatzen jarri nueneko gogoan dut) ari zenean, iritsi zaio helmuga gaztearen bizitzaren ibilbide motzari.

Olentzeroren txapelarekin jaitzitzen Antxon hiletara joan den astelehenean, haren babespean. Laguna, ezagun eta senide askoren babespea ere jaso zuen. Animo, Mari Jose eta Antxon!



Zizurkilgo Urkamendi elkartearen egindako prentsaurrekoan Tolosaldeko hainbat Udaletako ordezkariak izan ziren, Galtzaundiko ordezkaria den Nora Olano (behean, ezkerrean), edota Zigor Etxeburua (eskuinean behean). N. URBIZU

Elkarte gastronomikoak euskalduntzeko ekimena hasi dute Tolosaldean

Zizurkil ● 'Egin txokoa euskarari txokoa' lelopean aurkeztu dute, hainbat Udalen, eta Kontseiluaren babespean, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko 12 udalek, Tolosaldeko euskalgintzako zenbait ordezkari eta Kontseiluak Tolosaldeko elkarte gastronomikoetan euskararen erabilera sustatzeko ekimena aurkeztu zuten herenegun Zizurkil: *Egin txokoa euskarari txokoa*.

Ekimenak honako udal hauen babespea jaso du: Aduna, Alegia, Al-tzo, Anoeta, Baliarrain, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil. Udalez gain, baita Galtzaundirena, Lizardi kultur elkartearena, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearena (UEMA) eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarena.

Elkarteetan hiztegitxoak

Hasteko, euskalgintzako ordezkariak harremanetan jarriko dira eta hainbat tresna eskainiko dizkiete elkarte gastronomikoei, egunero-ko funtzionamenduan euskaraz aritu ahal izateko: kontuak euskaraz egiteko programa, edarien eta elikagaien euskarazko zerrenda edota elkarteetan gehien erabiltzen diren esaldiekin UEMAk prestatutako hiztegia. Ekimenen

parte hartzea erabakitzen duten elkarteei kontuak euskaraz egiteko euskarri digitalizatua aurkeztuko diete. UEMAko ordezkaria den Miren Aburuzak eskerrak eman zizkien Udalei, Galtzaundi euskara taldeari eta Kontseiluari, eta elkarlanari eman zion garrantzia.

Galdetegia, egoera aztertzeko Ondoren, Kontseiluak elkarteetan euskararen egoera neurtzeko prestatutako galdetegi emaniko diete. Elkarteek beren egoera aztertuta ahal izango dute (oso sinplea da), euskararen normalizazioan urrats gehiago eman behar dituzten jakiteko. Kontseiluaren Bai Euskarari ziurtagiria eskuratzeko proposamena egingo diete.

Iñaki Azaldegi Lizardi kultur elkartearen ordezkariak elkarteek jasoko duten laguntza nabarmendu zuen: «Elkarteen hizkuntza egoera aztertzen, gabeziak identifikatzen eta horiei konponbidea ematen lagunduko digute kanpainaren eta ziurtagiriaren bitartez». Bes-

talde, Tolosaldea «pribilegiatua» dela gogoratu zuen, «lautik hiruk euskaraz hitz egiten dutelako, baina konpromiso gehiago hartu behar ditugu, oraindik gauza asko dagoelako egiteko». Pauso berri ho-

Kontuak euskaraz egiteko, edarien eta elikagaien euskarazko zerrenda... izango dituzte

nekin «ez da euskara ondo ikasi beharrik, prozesu bat izan behar du, eta hau egiteko modukoa da».

Zigor Etxeburua Kontseiluko ordezkariak, berriz, aurkeztutako ekimenak eragingo duen aurrerapausoa aipatu zuen: «Kontseiluak pauso berri bat eman du: Bai Euskarari-tik Euskaraz Bai-ra jauzi egin du. Tolosaldean urrats hori ematen lagundu digute eta, horrela, guztiok elkarrekin lortuko dugu goiburua hori errealitate bihurtzea». Emandako pauso hau «txikia da baina interesgarria».

@ Hitzekin jolasean. Blog berri bat dago martxan gure webgunean: *hitzekin jolasean*. Irakurlearen artean osatzen ari den ipuina da eta *Eklipsea* izena du. Irakurle bakoitzak 3 bat esaldi idatz ditzake, ahalik eta parte-hartze zabalagoa izan dadin. Sartu eta irakurri orain arte osatu den istorio xeblebra.

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Rodilloa.** Txirindularentzako rodilloa. 699 60 91 40.

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. 620 727 691.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Villabona.** Pok eta Theatre des Chimeres konpainien eskutik, *Amamaren memoria* antzezlan, Gurean, 22:00etan.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Hilaren 26an egingo den Dantza sokarako entsegua izango da gaur, Edurka pabilioian, 19:00etan.

■ **Bidegoain.** Liburutegi berriaren inaugurazioa, 16:30ean. Ondoren, merienda. Balioantzeko zentroaren azken solairuan.

■ **Tolosa.** Zaldunita Bezperako emakumeen danborradan parte hartu nahi dutenek 699 551765 zenbakira deitu behar dute.

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoiairen batzarra udal batzar aretoan 20:30ean, abeslari, bazkide laguntzaile, lagun berri eta urteko ekitaldien berri jakin nahi dutenentzat.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** *Hitza* egin dezagun *chaca* izeneko zentro energetikoaz hitzaldia emango du Maria Martinek Kultur Etxean 20:00etan. Antolatzailerak: Aldem zentroa.

■ **Tolosa.** Uzturre Alkoholiko Anonimoen Elkartek, 15. urteurrena duela eta, alkoholismoari buruzko hitzaldia antolatu du Kultur Etxean 19:30ean. Jose Agustin Arrieta zinegotzia, Pili Oronoz mediku psikiatra, Lurdes Senovilla Gizarte laguntzailea eta elkarteak kideak emango dute.

Kontzertuak

■ **Tolosa.** Cobra eta Willisdrummond musika taldeen emanaldia Bonberenean, 22:00etan.

■ **Tolosa.** Mikel Urdangarinen kontzertua Leidor aretoan, 20:30ean *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkezteko. Sarrerak salgai Servikutxan, www.kutxa.net-en eta Kutxanet-en bidez, 10 eurotan.

Zinema

■ **Leitza.** Frank Oz zuzendariaren *Un funeral de muerte* filma, zinematan, 22:30ean.

» GUARDIAKOFARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



10.000 kilo biltzeko erronka

TOLOSALDEA • Piztu *itxaropena* lelopean aurten ere martxan da sahararrei laguntzeko janari bilketa. Gure eskualdean Tolosaldea Sahararekin elkarrekin arduratzen da janari bilketaz, eta aurtengoan, arrosa, azukrea, lentekak, hegala eta konpresak dira eskatu dituztenak. Iazkoan bezala, erronka berria ere jarri dute, 10.000 kilo gaintzea, hain zuzen. Tolosaldea

Maxi Eroski, Eroski Center eta BM supermerkatuetan eta eskualdeko hainbat udaletxe eta Kultur Etxetan utz daitezke. Dagoeneko 2.000 kilo bilduak dituzte, baina guztion parte-hartzea beharrezkoa izango da ahalik eta gehien eraman ahal izateko. Aste honetatik ikusgai dago Tolosaldeko Kultur Etxearen kanpoaldean bildutako kopurua jartzen duen kartela. i.t.

A Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Urte askoan!
Zorionak Mireille!
Ondo pasa zure
30. urtebetetzean!

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

Urtarrilak 12an Txotx garaiari hasiera emango zaio.



ISASTEGI
sagardotegia

Larunbat eguerditan irekita

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

ANTZERKIA

Amamaren Memoria

URTARRILAK 11 • OSTIRALA
22:00etan
VILLABONAKO • GUREA ANTZOKIAN

VILLABONAKO UDALA KULTURA BATZORDEA